



Sagardoa egiten Arrillaga baserriko tolarean./URRUZOLA

Sagardoa aztergai eta festarako aitzaki, datorren astean Ttaku-ren eskutik

DV. LASARTE-ORIA

Txotxeko sagardoaren denboraldi hasiera hau garai egokia ikusi dute Ttakun K.E.-ko kideek sagardoari buruzko bi ihar-duera nagusi antolatzeke: Mahainguru bat eta Sagardo Festa Otegi sagardotegian. Gure ingurunari eta kulturari horren estuki loturik dagoen produktu honetaz zerbait gehiago ikastea eta euskal jai giro ederra sortzea dira helburu nagusiak.

Nora doa sagardogintza

Asteazkenean mahai inguru bat burutuko da Kultur etxean, arratsaldeko 7.30etan. Argia al-dizkariarekin elkarlanean antolaturiko saio honetan, gaian adituak diren hiru gonbidatu izango ditugu: Joxe Mari Irizar (Barkaiztegi sagardotegikoa, Sagardo egileen elkartekoa), Migel Zapiain (Zapiain sagardotegikoa, Sagardo egileen Taldekkoa) eta Josu Tellabide (Aranzadi

Z.E.-ko etnologoa). Moderatzaille lanean, Argia astekariko zuzendaria den Pello Zubiria egongo da.

Bi sagardoegileek, sagardogintzaren eboluzioa (ekoizpena, merkatua, tresneria,), gaur egungo egoera, sagardoaren ezaugarriak, garai artekoarekin desberdintasunak, joerak, etorkizuna, eta beste zenbait gaiez arituko dira. Josu Tellabidek, sagardoak aurreko belaunaldietan izan duen garrantzia, tolarearen garrantzia baserrien egituran eta nekazal ingurunean duen eragina azalduko digu besteak beste.

Sagardo Festa

Larunbatean ospatuko da Sollane baserrian, gaueko 9etan hasita. Afari bikaina, trikitalariak, bertsolariak, e.a. izango dira. Txartelak Ttakunen bulegoan edo Garai eta Ostatu Berri tabernetan har daitezke, 2.500 peztetako prezioan.